

## EUSEBIO ERKIAGAREN NOBELA

Ez da bide, hainbat urtetako ekinaren ekinez gauzatu dan ederlanaz bare-bare aritzea, batez ere bere literatur landan batu leitekezan aberastasunei ia-ia menperatu ezinak eristean jakunean.

Badira bestalde, Eusebiori ezaguturiko gorespenak, geure arteko jakitun bikainen lumetatik urtenak, gainera. Eretia hartzen dogu une honetan, besteren hitzak norberanen bihurtu eta Mikel Zarate zanak eginiko aurkezpena ere aurkezpen egoki bihurtzeko:

«Erkiaga lekeitiarrak, poesia baztertu gabe-zorionez-eleberriari ekin zionean, etzitzaigun nolanahi hasi, aizearekin burruka ari dena bezala, ongi jakitaren gainean baizik. Ederki erakutsi du, izan ere, bidean topa zitzakean eragozpenak menderatzeko tresnez abiatu zela».

Bere hizkeraz eta idaztankeraz esanda dagoz sarritan esan behar ziranak. *Hiztun ederra da, aberatsa eta* beste guztiaz batera, *jatorra*. Jatortasun hori, dino Mitxelenak, jatorrizko Bizkaiko euskalkiari zor dautso, ez daualako estuegi mugatzen, hizkuntza zabalago baten oinarri sendoa izanik, bere herritarrentzat zuzen, eta gainerako euskaldunentzat, argi ta errearki mintzatzen dalako.

Berak autortzen dauanez, *ez dau idazte-lanetan maisu jakinik* izan, bere kontura hasia dogu literatur bideetan barru. Gerra

ostean euskaltzale batek bultzaturik, prosagileak behar zirala ta, prosazko lan luzeak egiteari ekiten dautso.

Hiru zatitan banatuko dogu gure ekitaldia:

1. Idazlan bakoitzari buruzko sarrera bat
2. Bere narratibaren berezitasun orokorrak estiloaren aldetik
3. Gai nagusiak

## 1. ERKIAGAREN NOBELEI BURUZKO SARRERA BAT

Sei libururen egile dogu Eusebio:

1. *ARRANEGI*. 1958an argitaratua, «Bizkaiko Kultur Billera»-k emoniko saria jaso eban. Ohiturazko eleberria.

Liburua, idazleak jaioterriari eta bere ohitura, berbeta, bazter, bizimodu eta arrantzale jendeari egindako erretratua dogu. Herritik jandako jakituri ogia, herrian erretako bizigai ugariak - maitemina, aberrimina, euskalmina...-, herriarentzat asmatutako omenaldi bihozpera eta gorespenezkoa. *Lekeitio* dogu *pertsonaia nagusia*. Lekeitio zahar bake-leku ia-ia ametszkoa. Joera klasikoan marraztua, euskal itxasertzeko edozein herritxoren eredu izan leitekalarik, Lekeitio uri txikiaren oihartzuna egoki zabaltzen da, itxasaldeko bizitza eta gizaro baten izakera berezia ezagutzeko *lan dokumentaltzat* hartzeko bide emonez.

Ez da bera lan hori egin dauan bakarra: T. Agirre ondarrutarrak Kresala eta Garoa-n, Barrenzorok Uztaro-n, Euskal Herriko mendi-itxasoaren barrien jakinean jarri ginduezan lehenago. Baina beronek ere, tantua irabazi eban guretzat Arranegi-ren bitartez.

Arranegi-n, etnografi jarduna bat egiten da hazur-maminezko pertsonaiekin: Zuriñe, Xirido, Jon,... gazteen hartuemonen gora-beherak; Txanton, lemazain zaharraren gaixotasunak ezabatuezineko itxaszaletasuna; Timuti Belarri eta Mikela Begi Bergara kaleko neskazahar nonzebarrien gatza ta berakatzak;; arrantzaleen nekeak eta jaiak,... neurriz beteko benetakotasuna damotse jaioterriaren deskribapen honi.



Esan behar, ohitura-eleberria izatean, ekintza edo gertakizun murriztekoa, gitxikoa gertatzen dala. Bada bai, narrazio, kontakizun bat, baina *ardatza antzeztokia* bera izatean, jazoeren erritmoa geldia da, astitsua. *Deskripzio ugaritasunak* - arlo desberdinen azalpen zehatzak (aurrekuaz, hegaluzeen arrantzaz, Errekaren erabileraz...) - eta *idazlearen uste-eritzien agerpenak*, indargabetu egiten dabe pertsonaien garrantzia. Gogoetak lekua kentzen dautsoe jazoerei, eleberriaren kalterako. (Hauxe bide izanik dino Mitxelenak nobela osoa ez bada ere, nobela polit baten zati apainak, haziak, eskeintzen dauskuzala).

2. *ARAIBAR ZALDUNA*. 1962an argitaratua, «Domingo de Agirre» nobela sariaren irabazle. Hauxe da Erkiagaren lanetan gipuzkeraz idatzia dan bakarra, nahiz eta bere bizkaitartasuna nongura agertu nobelan zehar.

Arranegi-tik urrunduz, jazoeren kokalekua hiritarra da: Bilbo da ekintza-toki nagusia, nobelaren 2. zatitik aurrera Lekeitio bera leku garrantzitsua bihurtu arren. Lekeitio aurkituko dau protagonistak, aurreko nobelan Zuriñek, beste aukeren artetik Arranegi auzo-auzoan aurkitu eban legez, bere benetako maitelaguna. Araiibar zaldun andrazaleak, *hiriburuko giro nabastu ta kosmopolitan* loraz-lora usain eta kolore sortatxoak dastatuz, *gizonaren gogo-grinak eta jokabide haragikoi eta mundutarrak* erakusten dauskuz. *Emakume desfile* bat da bere bizitza - bertan bete behar daben jokoaren arabera edertasun mota desberdinekoak (69. or. «Berria, obea». Ez zuan, noski, ori esan nai izango ardoagatik edota adiskideagatik) - gerorantz Lekeitio -Atxaga izenpean aitatur-, Agurnegaz ezkonduko da, baina ondorengorik izan ezina izango da, holan edo halan, bere aurreko bizimodu desbideratuaren ordaina. Ez da, baina, arazoa lerro pare baten konponduko: Araiibar kontraesanetan murgildurik aurkituko da, emakumeenganako lilurak eta erruki faltak, biak baten, eroango dabe aldakuntza asmorantz. Azken baten Erkiagak *giza hartuemonei buruzko ikuspegia* damosku: lehenago, nekezago, itxasontzi guztiak kai batera, eta kaien

artean, abarotsuena, emakume zuzen, maitekor eta fidelak eskeintzen dauana. Hain da babes gozoa, itxasontziak aurreko bidai eta joan-etorrietan idorotako urre-edertasun altxorrek ere, kai ezagunaren bakearen ordeztan bertan behera izteko atzerarik egiten ez dauala.

3. *BATETIK BESTERA*. Hauxe ere, 1962an argitara emona. Honetan, Latsetako (Lekeitioko) seme dan Nikanor «Zorritzto» izeneko umezurtz baten ibilerak edesten jakuz, umearotik hasi eta Bartzelonan bularrekoak jota gartzela bâteko gaisotegian hiltan dan arte. Aurreko nobelan lez, giroa urbanoa da gehien baten: Lekeitio-Bilbo-Bartzelona.

Nikanor ardaztat harturik, *ume eta nagusien mundu desberdinak* agertzen dauskuz idazleak liburuaren lehenengo zatian. Era batera, bere umearoko atseginen oroitzak eginez, gaur egunekoak ordezkatu ahala, lehenagoko umeen amets eta barrabaskeriei agur egitea da: idoloak -Bufalo Bill, Robinson..., jokoei-parretean, puntura, txanpan,..., sasieskolei, euli ta sugelandare ehizari,...

Zelan hasi, Nikanor, nagusien munduan sartu eta lana, azpijokoak, eritzi politikoak, maitasunaren lehenengo izpiak, ezagutzen joango da. Herria txiki bihurtzen jako, ezagutze-mina sentitzen dau eta, bizikleta bat ohostuta, uri handira abiatzen da handi-nahiak bultzatuta.

Hortxe emoten jako sarrera liburuaren bigarren zatian. Bereko azerikeriak eta ingurunearen errukiezak herritik alde egiteko eragin badautse, orain mundu barri bat zabalduko jako Bilbon: txatarreru lanetan egindako irabazkiak, Ezekiel lagun sozialistaren bitartez Marx, gizarte-auzia, greba, mitinen ezagupena. Emakumeak ere agertuko dira: Irune emagaldia, Zizili neska behargin fina,... baina ez bata ez bestea ez ditu asegarri.

Oraingoan, bizikleta ez baina dirua ohostu nagusiari eta Bartzelona aldera abiatzen da. Hasieran langile fin eta zuhurra



zanak, bizitzan gorantz egiteko ahalmena eukanak, diruak alperrik galdu ostean, korbata-saltzaile eta maleteru legez atara behar dau ogia, anarkismoagaz daukon zerikusia dala eta, atxilotu, gaisotu eta espetxeko eritegian hiltan dan arte.

Gaztetxotatik erabili izan dau izatearen muina bueltaka, leku batetik bestera ihes egin behar eta nahi izan dau. Erkiagak *izaeraren egonezina ta psikologia kezkaturia* margozen jakin dau. Heriotzaren aurrean biztuten dan arduraz, hoberakuntzaren itxaropena zabaltzen da Nikanorrentzat bera zaintzen dauan monjaren esanetatik: 244.» -Toki bakar bakarra dago, gizonak itxaropena galdu leiana.

-Zein toki?

-Inpernua. Atea, barrurantz joateko soilik edegiten dana». Nikanor sinisten hasten danean, hil egiten da. Zer ulertu behar? Ez dagoala galduentzat salbabiderik ala, kontrara, ez dagoala, halan iruditu arren, betirako heriotzarik?

4. *TXURIO TXORIA*. Lardabio giroko elebarri hau, 1963an idatzia izan arren 1985a arte argia ikusi bakoa dogu, izenburuak berak, euskera ereduak, testuaren luzerak,... aldaketak izan dabezalarik.

Nobela osoa pertsonaia inguruan eratzen da: Melki da, bere ahoz, 1go. pertsona, ekintzaren barri emoten dauskuna. Honek, behin baten, Txurio deritxon gizon bat ezagutu eta ordurarte bizimodu arrunta eroan arren, Txurioren gaizkile lapur taldean sartzeri behartuta ikusten dau bere burua. «Nagusi» horrenganako gorrotoaren hazia hasieratik erne bazan ere, aurrera egin beharko dau ezetzik emoteko adorerik nahikoa ez izatearren, azkenean heriotzara daroan arte, halantxe libre geratu taldekide guztiak.

Liburua irakurtzen hasten garanean, istorioa lehendik datorrela konturatzen gara. Melkik, Txurio bere bizitzan sartu aurreko bizitzaldia eta horren ostekoa bereizten ditu oroitzapenen bidez. Hau dala ta, esan leiteke pertsonaiak bi





dirala: Melki bera eta Txurio, bien arteko indar neurtzeak eta tentsioak mendekurantz apur-apurka bideratuz, Melkik nagusiarengandik ikasitakoa haren aurka erabilten dauan arte. Azken baten, progresio kronologikoagaz batera, narrazioaren indarra gorantz doala susmatzen dogu. Melkik nagusiari «Berak merezi dauana» emon beharko litzakiola erabakiten dauanetik eta Txuriok Melki hilteko saioa egiten dauanetik aurrera.

Harrigarriena, nobela giroari begiratu ezkerro, Melkiren oneranzko aldaketa da. Honetarako eragina, ezustean Zelinegaz, bere txikitako lagunminagaz aurkitzea eta hau, bere senarraren erruz etsipenean ikustea da. Berau zoriontsu bihurtzea eta Txurioz bengatzea izango dira bere helburu biak. Azkenean, (Nikanor aurrekoak legez) Melkik Jaungoikoagana jotzen dau parka eske, lapurreta eta indarkeriaz amaitu guran. Konbertsio antzekoa gertatzen dala esan geinke, honako konparaketa hau kontuan hartzen badogu behintzat: «Ausaz, Lazaro nintzan, zuloan sartuta, baina ustel usainik eta kiratsik bakoa».

Ekintza-tokiari buruz, uritartasunari jarraitzen dautso Erkiagak, baina ez da inolako izenik emoten istorioa non



gertatzen dan jakiteko. Euskal Herrian kokatu behar dala bai, eta honen barruan, hirian, era askotako auzo ta jendemodu dituen hiria, portua dauan hiria. Ahalezkoa litzateke Bilbo izatea gertalekua, kontakizun estiloari dagokion antzeztokia, ganster tipoko istoria honentzat nahiko aukera emoten dau eta.

5. *JAIOKO DIRA*. Liburu honegaz jarraipena damotso Eusebiok 1962an etendako ekoizpenari, hogeitabi urteko ixilaldiaren osteko lehenengo lana da ta, berak idatzitakoen artean, bostgarrena.

*1936ko gerrateko kontuak dakarskuz*. Ekintza, Lekeition kokatzen da, baina ez itxasoari so dagoen sehaska maitean, lehorrekoan baino, gerrateak itxitako egoera goibel eta ilundun herrian baino, Euskal Herriko hainbestetan gertatu zan giro berberean. Bake txarreko egoera dogu, baina ez itxaropena galdu danekoa, liburuaren amaieran Xenpelarren bertsoa pertsonaia baten ahoan jartzeak erakusten dauanez: «Jaioko dira berriak. Gu gera Euskal Herriak».

Denporari begiratu ezkerro, urruneko kontuak, baina askoren gogo-bihotzean bizirik dirauen jazoera garratz eta sakonak. Zaharren kontuak! Ez ba. Gai hau ez da guri orririk emon bakoa, hiletak jo jakoz Euskal Herriari, gudarien eginak aintzaldu dira, Salvatore Mitxelenak eta T. Monzonek egin eben legez, lehenago. Oraintsuago, izan da baita ere, azken urteotako eta zenbait literaturgileren artean, euskal historiako une horrenganako ardura, hurbiltze modua desberdina izan arren.

Menderatzaileak kanpotik etorri dira eta herriko agintariek aurrekoen esanetara jarri beharra dauke. Kanpoko alkatea jarriko dabe, aginte lekuak Udaletxea, Militarren Komandantzia, Guardia Zibilen eta falangisten etxea izango dira. Herria erdi hutsik dago; hutsunerik handiena gazteek itxitakoa da, batez ere mutilek, gudan dabilzelako. Bildurra dabil herritarren barruan, espetxeak, epaitegia, txapel okerrak, gudalekuak,

langile zigortuen lanlekuak... bide dirala. Bizitza edo ondasunak galtzeko arriskuaren aurrean, itxas bazterreko kaxarranka ta jaien ordeez, bizimodu latza; bake giroa barik, larri giroa euskaldunentzat, marinel zein baserritar izan.

Pertsonaiei dagokionez, *ez da zatiketa manikeorik*-onak beti on eta maltzurak beti maltzur diranekoa- jokabideetan herritarrek zein sartzaileak izan: abertzale izan behar litzatekezanak rekete diran legez, Francoren saileko batzuen jokaerak zuzenak dira, sendien baitan ere pentsaera eta ekintza aurkakoak agertuz.

Nobela hau ere molde klasikoetan idatzita dago- 3. pertsonako kontatzaile orojakilea-, baina bada laster bai laster argira azaleratzen dan *bestelakotasuna*: alde batetik, *kutsu didaktikoa ez dala bain agirikoa*, egilea hotzagoa da gaien ikuspegia emoterakoan, bere barru eritziak ezkutuago dagoz; beste alde batetik, *idazkera arinagoa*, aurreragoko idazlanetako poesi usain sarkorra moteldu egin dala, *kontatze-modu soilagoa*, ez horregaitik hizkeraren aberastasuna murriztuz eta herri iturriaren berbeta bizia eta atsotitz, koplata bertsoen isuria ahaztuz. Landua berezkoaren ondoan, pentsatua bapatekoaren ondoan, aukeratua freskuaren ondoan dautze.

6. *IRRIBARREA GALTZEN DANEAN*. Erkiagaren azken nobelaren izenburua, 1986an Bizkaiko Foru Aldundiak eraturiko Literatur lehiaketaren eleberri sailean saritua.

Erkiagak gaurko girora urreratu nahi izan dau, orain aldiko jazoerak eurenengan agertu guraz, gaur idatzia, gaurko arazoei buruz. Drogaren arazoa, langabezia, Udaletxearen ardurak, iraultza... dagoan mundua da hemengo pertsonaiek bizi dabena. Elementu horreen parean, larritasunez agertzen da euskaldunen arteko *batasunik eza*. Eta batasunik ezaren gaineratik, «irribarrea galtzearen arriskua». Irribarrea galtzen danean gizartea da galtzaile; begiek eukun ditzira ona, gero graziarik gabe». Baina zer dala eta irribarrea galdu? Alkarpidea, senar-emazteen banaketaz hautsi egiten da; hausturak, ondore-eza dakarrenez,



Herria bera bihurtzen da oinordegabea. Maitakundea behar da gehitu eta ugaltzeko; gehitu eta ugaltzea behar da Euskal Herriaren zuloen gainetik zubiak eraikitzeko.

Alde honetatik, *nobelarik ideologikoena* dala esan geinke. Pertsonaia batek aitaturiko sigla ugarien baso iluna, apostolu barriak baztertu eta zemaia, asperkunderak, gatz-erantzuteak ahaztu egin behar dira. Bakearen hazia erein behar da seme-alaba barriengan.

## 2. ESTILOAZ

Ezin leiteke esan teknikaren aldeko barritasunik edo modernotasunik agertzen jakunik. Erkiaga nobelak argitaratzen hasten dan unean, bada euskal idazle gazteengan Europako literatur korrante barrietara jotea, barritze gogo horrek emoitza bereziak emoten dauazalarik. Hor ditugu Mirande, Txillardegia, ... Saizarbitoria geroago «uhin berriko» beste batzuekin batera. Ezin dogu talde honetan sartu Erkiaga, bai belaunaldiari begiratu ezkerre, bai idaztinkerari aditu ezkerre, aurreko tradizioko idazleen jarraitzaile azaltzen dalako.

Hona emen bere berezitasunik nagusienak:

### 1. *Nobela uritarra*

Bere nobelak giro uritar, kaletarrean garatzen dira. Ez dago 60ko hamarkadara arte euskal nobelagintzan nagusi zan antzeztoki baserri girokorik.

Uritartasunaren ardatza Lekeitio da, gertaleku nagusia bi lanetan (Arranegi eta Jaioko diara), beste bitan beste izan batenpean (Latseta edo Atxaga, Batetik Bestera eta Araibar Zalduna). Azkenengo nobelan barriz, izan barik dakarsku jaioterria, baina hainbat ezaugarri aurkitzen ditu irakurleak, Lekeitio ezagutzen badau, harako ta honako txokoak bereizteko.

Baldintza hori dala eta, eta idazlearen joera deskribatzailea bide dala, lan dokumental ere bihurtzen jaku ohiturak eta jaiak

ezagutzeko: Antzarren jaia, Mastapuntakoa, San Pedroetako aureskua,...

## 2. *Kutsu didaktikoa. Ikasbide morala*

Erkiagak ez dau eragozpenik ingurua begiztatuz bere begiek jasotzen dabezan gizaseme-alaben jokaerak isladatzeko. Agirian izten ditu grinak, maitasuna, gorrotoa, lizunkeriak, hasarreak,... bizitzaren gatz-ospinez atonduz, bizitzatik urre dagoen fizkzioa bat asmatzen dau. Bertan ez dago sarrera debekaturik emagaldurik, homosexual, lapur eta gizarteko baztertuentzat.

Gordintasunez erakusten ditu arazoak. Legez kanpo edota fedearen kontrako jokaerak amaiera txarra dakarre: gaisotasuna, heriotza, tamala, antzutasuna,... Esan behar, baina, azken aldiko nobelan ez dala kutsu moralista hau hain nabaria: elkarrizketetan agertuko dira eritziak gizarteko jokabideei buruz, epai pertsonalak, baina pertsonaiak askeagoak dira eta ez dauke aurrendenporako okerreko bideetan zehar ibili izana zertan ordaindu behar.

## 3. *Ironia, umorea eta zorroztasuna*

Garratza eta gazia, biak aurkitzen dira Erkiagaren orrietan. Barregura eta zarraztada sortzeko ahalmena. Pertsonaien ahoetan *umorezko zein gordintasunezko* bihurtu leitekez berbak; idazlearen lumak isuritako trebetasunak *kritikarako* berba zuzenak agertzen ditu.

Ironia bikoizturik agertzen jaku: alde batetik, partehartzaile alkarrizketetan, hizkeraren anbiguedadea edo zentzu figuratiboa harrapatzeko erne egon behar garalarik. Esaterako, herria suak hartzen dauaneko pasartean: «Sakristaua ere, lo ete dago ba, kanpairik ez joteko? Ez dozu hiri bapere mirari, ezkonberria da ta» (Sat. 10)

Edo besteok:

-(Arr. 144): «Zer ete da ba nik egin dodana? -oihu egin eban atso nabarmenak.



-Zer egin? Talako Sankuan atzeko ormak berbetan balekiea,...

-(Arr. 47):- Arpegiko narrua ez yakiñat garbitu yonentz, baiña miinganeko zikiñak onezkero aldendurik izango yonaz, berbearen berbeaz»

-(A.Z. 47):-«Ez,... adiskide barruko bat baizik ezpaita!

-Barrukoegia ez ote da gero!... Belbillean eta, bide bakarretan eta biok lasai ibilteko!

-(Jrr. Jh.): Gizonezkoa kritiko jakintsua da eder gauzetan, kritikan ibiltan dana.

-Kritikan? Non da hori?

Beste aldetik, jazoerak eurak dira ironiaz deskribaturikoak. Baten literatur zaletasunaz hauxe dinosku: «Onduten ei eukazan onduten, bere idazgelako zurezko apal txairoetan; liburu jator asko, ardaua lez egonak eta iraganak ontzen ei ditu-ta» (Bat. 48)

Baita besteok ere:

-(Irr. 108):- «Eta hurrengo egunak eta gauak alkarren antzekoak izan ziren. Lo egitekoak. Txori bakotxa bere adarrean kokatuta».

-(A.Z. 6): «Eriozetxe: Alzola kalean, «Ene kaiola»

Ezin itxi aitatu barik *ezizenen* gatzak ta egokitasuna, azaldutako jokaera horren barruan:

.(A.Z.): «Seiko» eritxon abade zaharra, sermoietarako gaia beti seigarrenekoa zalako, beste bederatziak alde batera itxita.

.(Arr.) Timuti Belarri eta Mikela Begi inguruko albistak jakin eta emoteko espezialistak. Begi -belarrien usmaketa lanak beti betiro konbinazioa egin ezkerro, mingainak azalpen zehatz, biribil eta osoena emon eikeana.

.(Arr.): Ogimerkenekoak, Ondobiziñekoak.

#### 4. Hizkera poetikoa

Mitxelenak badinosku: «Argi eta garbi ageri da, edozein

orrialdetan, egillearen olerkaritasuna eta lirikako ixuria» edo J. Artetxeren hitzak: «El poeta a veces supera al novelista».

Aproposoko adibideok aitatuko doguz:

• *Pertsonifikazioak:*

-(A.Z. 166) Eldu zan gaua, bere ao beltz ta erpe sarraskozalez».

59: «astuntasun maitagarria berriro aifona Negu makurra kalean eta mendian eta ibai-ertzean somatzean»

-(Arr. 109) «Eguerdiko amabien kanpaiak ots astunez iragarri eben egunaren gerrialdia».

.Metaforak: «... an genduan gure aurrean itxaso edertsu bizia. Andre beti urduria betiere ara-onaka.

\*(A.Z. 41): «Telefonoak axut egin du, isilari bere miesa fiña urratuaz».

142: «Itsasaldean, gurma lanbrotsua loditzenago eta gauaren maindire meeak zabaltzenago»

-(Bat. 87): «Iluntzeak, bere izara baltzeranak zabaltzen ziarduan zeru eta lurrean».

\* 139, Mautsa andra loditonaren menopausiaz: «Zimeldu jako haragia; bizi-iturria agortu. Ta bare-aldi urdina dauka bere inguru, odolaren gorriaz ahazturik»

• *Sinestesiak:*

-(A.Z. 149): «ura zan bakartadearen erraigabekeria!»

152: «Ortzialde odoltsu arek Zuriñe-ren maite-zauria zirudian»

• *Konparaketak:*

\*(Arr. 11): «Eta sakonerago, Lumentxa mendiskaren oiñetan erri maiteko etxeak, auresku luze pozgarritzko bat egiteko alkarri eskuak emonda bailegozan».

182: «Etxeko seme urrundueri itxaroten egoan ama kutuna zirudian, Lekeitio inguruetako izadi zoragarriak»



\*(A.Z. 13): «Eta dantza-aroa ezkerro, gazteak, batez ere ta lendabizi neskatzak txoriak garitzara bezala joaten dira»

25: «Igande goizeko orduak eta alaber arratsaldekoak, idi nagiak bezenbat etzuten aurrerarik egiten»

62: «Maite-musu beroa eskaiñi zion mutillak, andik ordu erdigârrenean beste irudi eme bat ikusi zuâneko, saltoka ta goragoraka jardun baitzuan, izurdea bokarta sail gizenaren inguru bezala».

• *Similak:*

-(A.Z. 153): «Larri ta goibel jarri zan Tomas-en larrua. Bere kolko-loretegian ukan uste zuan landarerik ximenena, amets bikainena, izotzak bapatean jo ta eriotzurren jarriko zala igarri zuanean».

-(Irr. 52): «Gizonak ez daki, ez dau jakingo, zahartzaroa zer dan... inoren narruan. (...) Errotea norberak dauko, eta errotea ur murritzez geratzen danean... ai, orduan kontuak. Errotarria geldi ta nagi, lor eta sor susmatzen danagaz batera, gorarik ez eta beherantzekoa bai; sasoi bateko hamabiak geroetan sei ta erdietan lotzen diranean... Sinesgatxa da; horraitino, egia garratza»

Orokorrean, hizkuntzaren dotorezia, estilo kortesa dogu atseginena, grazia berezkoaz hitz egiten jakitea:

-(A.Z. 31): «Egarri ere al zera? -Bai, egarri ere banaiz.

-Eta zeren egarri? Emen ez al duzu edari onik?

-Bai, baiñan goxo izanik, egarria ematen dute.

-Zuk ere, gozo zeralarik, orixe ematen didazu niri».

47: «Guk, egia jakin nahi dugu eta egiak iraiña berea badu, orduan, isilduko gera».

59: «Udazkeneko orbelak, noren irudia, urrun xamar bederik, gogoratzen ote zion? Kemenik gabeko gizonaren kantu motela zebilkion barruan, adur biurritz, gun-gunetan, muiñetan, maitale-

nai eta maitale erdira ere heldu etzan Serafin gizarajoari».

### 5. Herri literaturaren eragina

Ahozko hizkerarenganako atxikimendua agertzen dau, «itxurakeriarik bako berbetea, zuzenezko elederra, gramatikariek menperatu ezinezko hitz uriola, indartsua, sarkorra, betea, durunditsua» (Jaioko, 126)

Bete-betea da Erkiagaren berbeta, hamaikatzotan erabilten ditu lerrorik-lerro:

- *lokuzio jatorrak*: aho bete aginegaz geratu, ahuntzaren gaberdiko eztula izatea, bakoitzak bere opilari su egin, barruko harrak erabili norbait, katuak ok egin,...

- *errepikapenak*: jendea hasi zan batu ta batu, gorri-gorri eginda etorren, sarri bai sarri, kendu hadi hortik kendu, zati zati egingo zaituek... zati zati!

- *obibu-bitz edo interjekzioak*: Arraioa!, Errekontxo! «Aker txarri hori», «Ardiseme, emaki hori!...

- *botsitz edo onomatopeiak*, ahozko hizkeraren otar freskutik: txipirri-txaparra, zirti-zarta, pla-pla, zanga-zanga, dzart,...

Hizkeraren aldeko berezitasun horreetatik aparte, herri-literaturaren eragina ondorengo honetan ere nabari da:

- *bertso eta kanta laburrak* tartekatzen ditu, herrikoiak zein berak herrikoi tipora asmatuikoak, edo herri kanten oihartzunean jokoan aritzen da: Txirritaren bertsoaren bat, Bilintxen oihartzuna, Iparragirrerena, «Artolatauko»,...

- *testularitzaren teknikara* jotzen dau alkarrizketa batzuetan:

-(Ir): «Samu, Samuel, misterioen Babel»

«Gitxien uste danean... erbiak brast sasitza ertzean»

(91) «hau, ta hori, ta bestea... -Ahuntzaren odolostea!

-(A.Z. 55): «Aste guztiak balira jai! Ni bezalako alperrak orixe nai»



- *errefrauak* erabilteko joera handia: herri eskola:

- Ez sarerik heda usoak aldegin ostean
- Ura joanda gero errekarari esia egitea alperrik
- Lapurrari, lapur ta erdi
- Ahuntzari eta andrazkoari, eman luzea lokarri
- Dagoenean bonbon, ez danean egon
- Guzurra esan neban mendian, neu baiño leen zan errian
- Auzokoaren samiña, ene atsegiña

*Hitz jokoetarako zaletasuna* ere agertzen da bere lanetan:

- (A.Z, 40)»... agur egin die, erdi agur edo ordi agur»
- 53: «Gaur behintzat izango ditut gauza bi. Neska eta akeita.
- Neska teoriz, e? Akeita, benetan
- Ez biak batean. Ez al dio or neska-kafe?

Zati honetan herri literaturaren aztarnetaz bagabilz ere, esan behar da Erkiagaren mundu literarioaren ezagupena ez dala honetan mugatzen. Sthendal, Gogol,...-entzat leku aproposa dago gogoeta edo esakuneraren baten arira. Frantsesezko abestiren bat «La feuille d'autonome» (A.Z. 59), filme batzuen izenburua, garaiko exitoen ezaugarri: «Eguzkipean alkar iltzen», «Rebeca», «Aizeak eraman zuana»,...

Bibliara ere joten dau adibide edo alegoria bitartez mezua argitzeko edo edertzekotan:

- (A.Z. 136) Gau illunean etsaiak garitza gizenean zalgia erein oi duan antzera, Agurne-ren biotzean ere, arerioak.

- Tomas elduberriak, jakiña zan-, erein zuan bai erein, ari uztagarri zitzaion belar mardula».

- (Ir. 105): «Erdi hausi gure etxeko bakea; ...hondarraren ganean eginiko gaztelua»

## 6. *Sinonimo zaletasuna*

Gauza bera izendatzeko era desberdinak erabilten ditu. Ulermena errezten dauan bitartean, irakurketa geldiarazten dau. (Euskal lexikoaren ezagupena zabaltzeko bide ere bai). Askotan jarten ditu bata bestearen ondoan hitz bi esanahi bardintsukoak, ezagunagoa eta «garbiagoa». Adibidez: txirlarri edo perla, amapola edo urdamutur, kapela edo ginbaila, ikusgu edo balkoia, zaingorri edo geranio,...

Batzuetan aposizioan jartzen ditu esaldi barruan: (Arr. 157): «Barreneko itsaso nastau murgilla, naretu, gozatu, emetu, ekurutu egikiola» e.a...

## 7. *Sintagma paraleloen ugaritasuna*

-(A.Z. 58): «Antxen zegoan gure gizona bere barruko zeraz mingostasuna gustorago milizkatzen, oiñazepean bere gogorapen-eiotzen. Samiña, samiñagotzen; nekea laztantzen, agian»

-(Arr. 151: «Nahikoa mirari izan zan bizitza gabe ez lotzea. Arnasea, betiko ez etetea. Odolaren takadak sekulako sekulakotz ez atertutea».

-187: «... baekien kaleko arriak bere, arako laikoaren zapokeria, arako aalkeizunaren guzurra, arako lotsariaren zuzenbakokeria».

## 8. *Pertsonaiak*

Pertsonaia askok hartzen dau parte historian, batzuk aktiboagoak beste batzuk baino. Euren arteko harremonak nondik edo zertatik sortuak diran batzutan nahastetsu edo ilun iruditzen jaku; beste batzuetan, oster, pentsatu ere egingo ez gendukezan zeharbide eta kasualitateak sortuak dira. Amaieran justifikatzen dira nobelan zehar agerturiko edo aitaturiko pertsonaia solteak, erdi ahaztutzat itxiak. Zerikusiren bat izaten dabe pertsonaia nagusiagaz, honen bizitzaren parean eurak



eurak euren kontura eroan baina arinago nekezago alkar gurutzatu egiten diralarik.

### 9. Deskripzio tinkoak

Pertsonaien azalpena egiterakoan ez da askorik luzatzen xehetasunak emoten. *Sintetikoa da* da, izena adjektiboaz lagundurik, aposizioan elementu desberdinen seriazioa, nahiko dira kanpo-itxuraren barri emoteko. Puntu honetan adjektibazioaren orijinaltasuna aitatu behar.

-(A.Z. 85): «Betartea ikusgarri zuan, agin txuri, begi polit, ille lastokara argia. Garri eta abar, lirain eta ongi zerdaituak eta armatuak, edozein gizona zekoren deigarri.

7: «Gaztea zan ateak ertsi zituen mutilla, ongi jantzia arpegi borobil, bizkar sendoa, ille gorritzta, begi urdin».

12: «Gazte kriket eta txairoa zan Araibar (,,) Begitarte atsegiña, gorputzez lerdin, mintzoz gozoa (...) Illeak, urrearen pare zituana, ea luze ta kopatsu, beti distiratsu, malgu ta atxiki (,,,) Hizketan oso leguna zan, geientsu. Eta errikoia eta jendakiña ere bai, nai zuanetan»

45: «Bizkarra kako, sudurra luze, dindirri-jario ta malko-errez, an dioa apaizen ipui ziranak entzutera»

### 10. Narratzailearen ikuspuntua

Narratzailea era bitara agertzen jaku: 3. pertsonan, istorioaren barri kanpotik emonez edo 1go. pertsonan, bera protagonista izanik. Baina inoiz ez da narratzaile hotza: beragaz zerikusirik ez dauken irudimenezko notinetaz ari danean ere, bere galdekizun, zalantza eta haridurak izten ditu agirian.

Bestalde, narratzaileak joera dauko zenbaitetan, *irakurleari berba* egiteko; berari zuzentzen jaku nobelari buruzko azalpenen bat emoteko, edo ondoren datorren episodio bateri buruzko aditasuna ernarazteko, noizbehinka sobra dagozan oharak eginez, benetakotasuna kentzen dautselarik jazoera eta

pertsonaiei.

Adiz: (Arr. 44): «Barruan zegoana, Manu zan, eleberri ontako ardatz-notina».

11. *Anakronia* (Sta. Barbararen salmodian, ur bedeinkatu zipristinak, drogata abarketagilea)

12. Istoriotxoak istoria nagusiaren barruan

13. Irrealtasuna

14. Lirikotasuna: harridurazko eta galderazko esaldien pilaketa.

15. Amaiera azkarrak.

### 3. ERKIAGAREN NOBELAGINTZAÑO GAI NAGUSIAK

Erkiagaren orriek erakutsi deuskue idazle honen doaia tankera arras desberdineko kontakizunak burutzeko. Ohiturazko eleberria, lardabio girokoa, hara honako ibilera abentura antzekoak, gerrate garaiko gora behereri buruzkoa zein gizon-emakumeen hartuemonen inguruan eratua sortzeko gauza da. Halan baina, badira gai batzuk batzutan zein besteetan berragertzen diranak. Guk honakootan laburtuko dogu euren aipamena, aurretiko ohar legez, multzo zabal bateko baten batzuk baino ez dirala esanez:

#### 1. *Emakumearen garrantzia*

Plano desberdinetan agertzen jaku emakumea. Bere liburuetan, emakumearen egonaren garrantzia ukaezinezkoa da, beti dauko lekua gorderik era batera edo bestera, ardatza danaren ondoan eragina izateko, normalean onerako. Beronen barri emoten deuskuen azalpenak, Erkiagaren estilora, soilak, sintetikoak dira sarritan, hitz gitxitan ezaugarri nagusienak aitatzeak. Beste batzuetan, hizkuntzaren zehaztasuna baztertu barik, olerkaritzaren euskarriari oratzen dautso plastizitate handia lortuz: (Arr. 97): «Maiganetan ipinten ditugun



alabastrozko iruditxo pitxi txoragarrien ainbatekoa zan aren tankera segail lerdena, zumea bezin zutia, lizarra aiña. Otzana, osakumearen antzera. Gozoa, marrubi heldua bestean».

*Emakumearen deiturak* izendatzea lagungarri ikusten dogu, idazleak erakusten dauan ikuspegi moralaren ezaugarri legez:

-(Arr. 9) Arranegiko zabaleko uso tortola zuria, izenez baizen izanez urdin zan Zuriñe...

103. «Arranegiko lirio apaiña...

-(A.Z. 23): «Eta ez zuen bakarrik utziko, ziur asko, une artan kalean barna, beste pinpilinpauza arin bat agertu izan ezpalitz».

38: aingerutxo garbi bat

16: Ebaren alabak

-(Irr. 31): «Emakumeak... bizitzako mitxeletatxuak»

Halantxe, zozo zuri inork ikutubakoaren ondoan, uso nabarra, gizon andra kontuetan jakina aurkituko dogu. Hegada nabar eta nabarmenak egingo ditu emakumeak noizbait, hiri handian ezaguturiko gabirau edo arranoa dala eta ez dala.

Esan geinke emakumearen aztertzaile legez agertzen dala Erkiaga. Zelakoak dira Erkiagaren eleberrietako emakumeak?

1. lehenagoko taiukoak (Arr. 16): «Ez lotsorra ez nagia, baiña ez osteratsabakoa be; orixe ez, geldi or! Kai aldeko ta legorreko neskatilla jator askoren artean, aizta biok eratsu, jaseko ta berebizikoak ziran, leenagoko emakumeen ereduizkoak, erriko alaba goragarriak».

2. *berbalapiko, jakinguratsu eta pinpirinak*:

-(Irr. 30): «Aldrak aldra erne dira hor hemen. Ba dauke uriko umakumeek zati baterako gaia, berbetea. Zorionekoak eurak, euliaren hegadearen zaratarik txikerrenak be, barriketarako gaia emoten deuselako»

48: «-Berbaldunak dira.

-Emakumerik gehienak lez.

-Horixe. Gure ama be, berbalduna zan. Lar berbalduna, arriskuan.

-Hori euren izakeran dago, ez ta?

-Baietz esango neuke.

-(A.Z. 16): «Emakumeak, Ebaren alaba jator bezala, arroputze, anpaturik jaso zuan atsegiñaren andiz, gizon gaztearen losintxa ori»

42: «Emakumea irudia da, irudi bizia ta biziduna. Soñaren izate guztiak edertzen, apaintzen eta nabarmentzen dau izan, buruausterik gogorrena, gazte ta gei dan artean batez ere, baina baita ere gerotxoago, ta urte luzeetan gainera.

Gudariaren antzera, emakumea beti dago gertu, beti ernai bere buru-eder aldezko burrukarako».

3. *aldakuntza indarra gizonetzkoarentzat*. Emakumea, gizonaren begietarako erdi lagun erdi menpeko agertzen da askotan, pertsonaien eritzietan:

-(Irr. 136): «Hori etxeko jaunak erabagi lei, beste arazoen antzean»

-(A.Z. 136): «Bere eskolako gai zuan, emakumeari, geienetan, astapenetik nekea emotea (...) orrelan gero, uztarriaz oitura asaldatzerik eta goragoraka asterik izan ez zezan»

Holan edo halan, gizonaren grinen biztugarri danez, emakumearen jokaerarik legezkoena, bere gorputzaren osotasuna zaintzea da:

-(A.Z. 82): «Neskatxa ugari zegoan inguruetako maitxoetan. Guztietarikoak ziran, zintzoak, ezbaiekoak, erabilliak. Mutillak, ingurari, orra-ona, erle ernaiaren antzera, lore auts gozoena nun miaztuko zalantzaz».



-(Irr. 26): «Emakume gaztea beti da gurari-deia gizonarentzat».

-(A.Z. 51): «Bazituan beste doai batzuk, gizonen oles egin oi dietenak».

Neskatasuna zaindu ezean, ondoriorik ziurrena dāmua eta maitearen begiramena galtzea litzateke. Ezkontzaren bedeinkazioak emoten dautso hasiera denpora egokiari:

-(A.Z. 61): «Manu, ez nuan ongi egin illuntze artan denpora baiño leen zuri utziaz...»

71: «Zerbait gutxiago zuan, eta neskaxa batek zintzoro eta tinko zaitu behar zuana zan ori, ain zuzen.»

Horregaitik, amets betegarri lez, emakumea ezkontzaren itxaropenez bizi da. Erkiagarentzat, euron lehendabiziko ezaugarrietariko bat, maitakuntza da, grina amodioa. Baina ezin leitekez bizi bigarren mailako zerbait barik, irrikaz itxaroten dautso «ezkontza» hitzari bere sentipen iturriaren asebidet egoki legez.

Begiramen handiz hartzen da andrea, batez ere jasekoa aurkitu ezkerok, gizonak bertan behera izten dituelako haragiaren gehiegikeriak, Araibar Zaldun-eant esaterako, holan agertzen da gizonaren jauntxokeriaren sintesia: 124: «Bizitzak zarama koloregabeko malda arreska baten barruna. Dirua, gonak, edaria...agian! Oixe duzute gizonok, trilogiarik atseginena. «Hala ere», zergaitik ez da, biotzak, iñoiz edo bein uzta mardul eta aitorrik erakarri, bizitzaldi soil ontan?»

## *2 Amatasunaren balioa*

Amaren maitasuna zuzenean agertu leiteke pertsonaien arteko roletan. Ama ez diren emakumeak, baina, gurari hori dauke: semealaba bako Mautsa emazte adintsuak amatasun senak eraginda, babesle moduan jokutzen dau «Batetik bestera»-ko Nikanorregaz; «Irribarra...» Polisene gazteak, bere senar dan erdi agura ziztroaren gaisotasunaz arduratzen da, aurrerantzean emazte zapuztu edo frustratua izateaz gain, ama

legez hartu behar daualarik; Araibartar Agurnek bere burua jartzen dau arriskuan umontzia egokitzeke ebakuntza bat egiterakoan; Zergaitik?:

-(A.Z. 162): «Aurrik gabeko sukalde legor ta itsa! Arbintasuna bazterretan ekuru urriko egoera bein-beiñekoa dirudiana (...) Aoan ozkirri emanaz, agiñak kirrikirrika jarten dituan idurikoa. Ezkon-ontzia zambuluka ari oi da, eta ekaitzik ariñena ere, aloxuan gainditzen da.

Ez da miresgarri aurrik ez duan emazte gaztearen biotza arbintzen eta larritzen astea. Gabetasunak, ezak, xiri-xiri sortzen duan bekaitz sustraiaz gaiñera, maitetasunak, senar-emazteen arteko alkar-beharrak geien geienetan zauri ta arrakala ezagunak agertu ditu. Guraso berrien artean, lokarririk egokienak zeruak emandako aurrak».

### *3 Ekanduen aldekotasuna*

-(Arr. 40): «Aurrekoengandik dituzuen eresoinqueta zoragarriaok, mundu zabal onen erdian: ez egizuez aaztu, ez utzi, ez baztertu. Errikosemeen ahaleginak arlo ortan ere, arduratsuak eta onuratsuak baitez. Urtero ikusi daitezela uriko kaleetan, izakera berarizkoaren agerkaietariko lez. Iraun begie mendeen ondarretaraiño!

### *4 Erljioaren defentsa*

Sentipen hau batera agertzen da geroko kontu garbiketaren orduan lasai egoteko norberak eroan behar dauan jokabide moralagaz.

-(A.Z. 94): «Ur ona edan eta zindoro bizi edota ur likindua irentsi eta pozoiturik gelditu, or konpon. Norberak daki zer gauza erosi.

- 124: «Bal al zara heriotzaren bildur? (..) Askatasuna duanak ez du iñoren ez ezeren bildurrik. Edota... ez du askatasun ori!

Kontrako eritziak agertu leitekez pertsonaien artean: katolizismoa tristezi bide lege ikusten dabe batzuk. Baina



azkenerantz Jaungoikoa aurkitzea gertatzen da maltzurren eta desbideratuenen artean ere. Zentzu honetan, analogia ikusten dogu lurreko bizitza betiko bizitzarako prestaketa legez:

-(A.Z. 93): «Zure bizitza baldin oker badarabilzu, aztertu ta zuzen bertatik. Oitura txarrak utzi, lagun gaiztoak bertan beera laga, elizara urbildu».

### *5 Izen onaren ardura*

(A.Z. 49) Gure izen ona ez diogu geuk geure buruari ematen, Besteak, enparaukoak sortzen dute eta obetzen edota gutxiesten.

### *6 Zorigaitzaren agerpena*

Ez dago lore hutsezko bizibiderik. Samina bizi dau gizonak alderdiren batetik. Errealismoa.

Azkenez, esan behar, ez dugula mihin zuriz berbarik egin nahi izan, txalozaleei eurretaz egitea atsegin jakez legez. Geu gara, amai baten, esker oneko hurbildu behar gaiakozanak, Erkiaga irakasle suertatu jakulako alderdi batetik, eta bestetik, irakasle handiuste bakoa izanik, -berak inonez euskeraren alde egitearren idatzi izan dauan banketxe-langile bat besterik ez zen hori baino asko ta asko gehiago dala argi ta garbi erakutsi deuskulako. Gora handi barik, bai, baina, esaera zaharrari jarraiki, «bakoitzari berea, Jaungoikoaren legea», eta Eusebioren lana, hortxe gelditzen jaku geure eta euskeraren ederrerako ondoren.

*Miren Agur Meabe*